



## Eskola Kirola – 2017-2018ko lehiaketako araudia

# BOLEIBOLA

Boleiboleko kirolean, sei jokalariko bi taldek hartzen dute parte, sare batek erdibanatzen duen jokaleku edo kantxa batean.

Jokoa honetan datza: baloia arauzko eran jaurti behar da sarearen gainetik aurkarien zelaiko lurrera, eta norbere zelaian lurra ukitzea galarazi. Eskuineko atzelariak jarri behar du baloia jokoan, sakea eginez. Sakean, baloia eskuarekin jo eta sarearen gainetik eta hagen artetik bidaltzen da aurkarien zelaira.

Talde bakoitzak gehienez ere hiru aldiz uki dezake baloia (blokeoko ukitzea kontuan hartu gabe), baloia aurkarien zelaira berriro bidaltzeko. Jokalari batek ezin dezake baloia bi aldiz segidan ukitu, blokeoan izan ezik.

Jokoak aurrera egiten du egoera hauetako bat gertatzen den arte: baloiak lurra ukitzea, baloia joko zelaitik “kanpora” ateratzea edo talde batek arauzko falta egitea. Boleibolean, huts egiten ez duen taldeak lortzen du puntua. Errestoan ari den taldeak jokaldia irabaziz gero, sakea eskuratuko du eta taldeko jokalariek posizio bat aurreratuko dute erlojuaren orratzen norabidean. Errotazioak aukera ematen die jokalari guztiei sarearen ondoan (aurrelariak) nahiz atzeko aldean (atzelariak) aritzeko.

Hogeita bost tanto egin eta biko aldea daukan taldeak irabaziko du set-a, eta hiru set irabazita, partidaren garailea izango da. Partidak set izenekoetan banatzen dira. 5 set-etan onenak irabaziko du partida. Set bat irabazteko, hogeita bost puntu lortu behar dira, aurkariak baino bi puntu gehiago edukita, inolako mugarik gabe. Hala, set bateko emaitza hauxe izan liteke: 30-28. Bosgarren set-a jokatzuz gero, irabazleak hamabost tanto egin beharko ditu, aurkariari bi tantoko aldea aterata.

### 1.- MINI BOLEIBOLA (Benjaminak eta kimuak)

1.1. Joko zelaia.- Joko zelaiak honako neurri hauek izango ditu: 12 metro luze eta 6 metro zabal, hau da, zelai erdi bakoitza 6x6 metroko laukia izango da.

1.2. Sarea.- Kategoriaren arabera, sarearen altuera honako hau izango da:

<u>Kategoria</u>	<u>Mutilak</u>	<u>Neskek</u>
Kimuak	2,10 m	2,10 m
Benjaminak	2,00 m	2,00 m

1.3. Baloia.- Baloiak esferikoa eta larru malguzkoa izan behar du, eta barruan gomazko edo antzeko materialez egindako ganbera eduki. Baloiaren zirkunferentzia 65 eta 67 cm bitartekoa izango da. Pisua, berriz, 260 eta 280 g artekoa izango da. Arabako Boleibol Federazioak antolatutako lehiaketetan, baloi ofiziala molten IV5XC izango da; hala ere, Nazioarteko Boleibol Federazioak ofizialtzat daukan mikasa MVP 200 baloia ere onartuko da.

1.4. Jokalariak.- Arabako Eskolarteko Jokoetan parte hartzeko, gutxienez 6 jokalari eta gehienez 10 izan behar dira. Horietako lauk nahitaez jokoan egon beharko dute.



1.5. Entrenatzailea.- Beharrezkoa izango da talde guztietan entrenatzaile-hezitzaile bana egotea.

1.6. Partiden iraupena.- Partidak set-etan banatzen dira. 5 set-etan onenak irabaziko du partida; set bat irabazteko, hogeita bost puntu lortu behar dira eta, gutxienez, aurkariak baino bi puntu gehiago izan behar du irabazleak. Bosgarren set-era iritsiz gero, bi puntuko aldeaz irabazi beharko zaio aurkariari, mugarik ez dagoela. Dena dela, bosgarren set-a hamabost tantotara jokatuko da.

1.7. Jokalariak aldatzea.- Boleibol arauetan ezarrita dagoenez, talde batek guztira sei aldaketa egiteko eskubidea du, baldin eta honako arau hau betetzen bada: “ordezko jokalaria bat jokoan sar daiteke, baina set bakoitzean behin bakarrik eta hasierako seikoan jokatu duten jokalarietako baten ordezkari; gainera, aipatutako jokalariak bakarrik ordeztu ahal izango du bera”.

## **2.- BOLEIBOLA (gainerako kategoriak)**

2.1. Joko zelaiak.- Joko zelaiak honako neurri hauek izango ditu: 18 metro luze eta 9 metro zabal, hau da, zelai erdi bakoitza 9x9 metroko laukia izango da.

2.2. Sarea.- - Kategoriaren arabera, sarearen altuera honako hau izango da:

<u>Kategoria</u>	<u>Mutilak</u>	<u>Neskak</u>
Kadeteak	2,37 m	2,18 m
Haurrak	2,24 m	2,10 m

2.3. Baloia.- Baloiak esferikoa eta larru malguzkoa izan behar du, eta barruan gomazko edo antzeko materialez egindako ganbera eduki. Baloia zirkunferentzia 65 eta 67 cm bitartekoa izango da. Pisua, berriz, 260 eta 280 g artekoa izango da. Arabako Boleibol Federazioak antolatutako lehiaketetan, baloi ofiziala molten V5M4000 izango da; hala ere, Espainiako Boleiboleko Errege Federazioak ofizialtzat daukan molten V5M5000 baloia eta Nazioarteko Boleibol Federazioak ofizialtzat daukan mikasa MVP 200 baloia ere onartuko dira.

2.4. Jokalariak.- Arabako Eskolarteko Jokoetan parte hartzeko, gutxienez 8 jokalaria eta gehienez 12 izan behar dira. Horietako seik nahitaez jokoan egon beharko dute.

2.5. Entrenatzailea.- Beharrezkoa izango da talde guztietan entrenatzaile-hezitzaile bana egotea.

2.6. Partiden iraupena.- Partidak set-etan banatzen dira. 5 set-etan onenak irabaziko du partida; set bat irabazteko, hogeita bost puntu lortu behar dira eta, gutxienez, aurkariak baino bi puntu gehiago izan behar du irabazleak. Bosgarren set-era iritsiz gero, bi puntuko aldeaz irabazi beharko zaio aurkariari, mugarik ez dagoela. Dena dela, bosgarren set-a hamabost tantotara jokatuko da.

2.7. Jokalariak aldatzea.- Boleibol arauetan ezarrita dagoenez, talde batek guztira sei aldaketa egiteko eskubidea du, baldin eta honako arau hau betetzen bada: “ordezko jokalaria bat jokoan sar daiteke, baina set bakoitzean behin bakarrik eta hasierako seikoan jokatu duten jokalarietako baten ordezkari; gainera, aipatutako jokalariak bakarrik ordeztu ahal izango du bera”.

2.8. Tantoak.- Tantoa lortzeko, ez dago sarea eduki beharrik; hau da, jokoan hutsik egiten ez duen taldeak irabaziko du tantoa.



### **3.- ARBITRAJEAK**

**Arbitro edo epaile lana Arabako Boleibol Federazioaren ardurapekoa izango da.**

### **4.- PARTIDEN ORDUTEGIA**

Etxean jokatzeko duen taldeak, nahitaez, partida jokatu den orduaren eta lekuaren berri eman beharko dio federazioari, partida hori jokatu aurreko astelehenaren arratsaldeko 6ak baino lehenago. Partida jokatzeko ordua eta lekua jakinarazten ez badira, etxean jokatzeko duen taldea zigor gortuko da.

### **5.- PARTIDETARA EZ AGERTZEA**

Ezarririk egutegian adierazi den orduan partida jokatzera agertzen ez diren taldeek honako zigorrak jasoko dituzte:

- a) lehenengoz ez agertzea: partida hiru set eta hutseko emaitzaz galtzea.
- b) bigarren ez agertzea lehiaketa berean: partida hiru set eta hutseko emaitzaz galtzea eta sailkapen orokorrean hiru puntu kentzea.
- c) hirugarren ez agertzea lehiaketa berean: taldeak izan litzakeen eskubide guztiak galtzea. Hala ere, partidak jokatzeko jarraitu ahal izango du, horiek sailkapenerako punturik eman gabe.

Partida jokatzeko hasteko nahikoa ez den jokalarik kopuru batez agertzen den taldea ez agertutzat hartuko da, eta dagozkion zigorrak ezarriko zaizkio.

Deskalifikatutako talde batek lortutako emaitza guztiak sailkapen orokorretik ezabatuko dira.

### **6.- ZELAIK ESKATZEA**

Partidak jokatzeko xedez, Arabako Boleibol Federazioari zelaien erabilera eskatu behar zaionean, gutxienez hamabost egun lehenago bidali beharko zaio eskaera.

### **7.- PARTIDEN ORDUTEGIA ALDATZEA**

Aldaketa egin nahi duen taldeak nahitaez jakinarazi beharko dio federazioari. Hala ere, ez da partida baten ordua aldatuko aurkako taldearen oniritzirik gabe. Gutxienez, 48 ordu lehenago eman beharko zaio aurkako taldeari ordua aldatzeko nahiaren berri. Aurkako taldearen oniritzirik izan ezean, eta partida aldatutako orduan jokatzeko bada, partida galdutzat emango zaio ordua aldatutako taldeari.

### **8.- LEHIAKETA EGUTEGIEN ALDAKETAK**

Lehiaketen egutegia ezinbesteko arrazoiengatik baino ezin izango da aldatu. Edozein arrazoiengatik (bizikidetzako egonaldiak, ikasketak amaierako bidaia eta abar) partidaren bat geroratzea beharrezkoa denean, aurkako taldearen oniritzia aurkeztu eta norgehiagoka egingo den eguna eta ordua jakinarazi beharko dira. Arrazoia zeinahi dela ere, Arabako BOLEIBOL Federazioari idatziz jakinarazi beharko zaio, gutxienez, HAMABOST EGUN lehenago.

Arau horietako atalen bat betetzen ez bada, diziplina arautegiko ez agertzei buruzko artikuluko aplikatuko dira.



## 9.- PARTIDEN EMAITZA

Etxean jokatzeko duen taldeak Arabako Boleibol Federazioari jakinarazi beharko dio partidaren emaitza, norgehiagokaren ondoko lehenengo lanegunaren arratsaldeko 8ak baino lehenago. Jakinarazpena honela egingo da: partidaren akta Federazioaren bulegoetan (Zerkabarren kalea, 5-behea, Vitoria-Gasteiz) aurkeztuta. Etxeko taldeak emaitzaren berri ez ematekotan, talde hori honela zigortuko da:

- a) lehenengo aldia: emaitzari eutsiko zaio, baina etxeko taldeari puntu bat kenduko zaio sailkapen orokorrean.
- b) bigarren aldia lehiaketa berean: hiru puntu kenduko zaizkio sailkapen orokorrean, baina partidaren emaitzari eutsiko zaio.
- c) hirugarren aldia lehiaketa berean: taldea deskalifikatu egingo da, eta izan litzakeen eskubide guztiak galduko ditu. Hala ere, partidak jokatzeko jarraitu ahal izango du, horiek sailkapenerako punturik eman gabe.

Kasu horretan, deskalifikatutako taldeak lortutako emaitza guztiak sailkapen orokorretik ezabatu egingo dira.

## 10.- DIZIPLINA ARAUDIA

Uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUA, eskola kiroleko lehiaketen diziplina araubideari buruzkoa, izango da aplikagarria.

**ARAUDI HONETAN ARAUTU EZ DIREN JOKO EGOERA GUZTIAK BOLEIBOLEKO BATZORDE NAZIONALAREN JOKO ARAUEI JARRAIKIZ EBATZIKO DIRA.**